

649. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Gaia

Santa Eufemia azokako taloen txosna jartzeko ekante bidez esleitzeko administrazio-baldintza zehatzen orriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Arazo batzuen ondoren, 2015. urtean, Udalak Santa Eufemia eguneko azokaren antolakuntzari buruzko erispideak onartu dauz eta taloen txosnari jagokonez, aukeraketa zozketa bitartez esleitu da.

Bigarrena: Taloen txosna jartzeko beharra kontuan izanda eta interesdun bi baino gehiagok aurkezteko asmoa daukiela, zozketa barik, enkantea egokiago ikusi da baina beti be, taloen txosna bakarra jartzeko.

Argudioak

Bakarra: 2016ko uztailaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016. urteko Santa Eufemia eguneko taloen txosna enkantera zabaltzea onartu dau, horren orde, Santa Eufemia azokako taloen txosna jartzeko ekante bidez esleitzeko administrazio-baldintza zehatzen orriak prestatu dira.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot:

BAKARRA: Santa Eufemia azokako taloen txosna jartzeko ekante bidez esleitzeko administrazio-baldintza zehatzen orriak onartzea eta web orrialdean argitaratzea.

NIRE AURREAN
BEHIN-BEHINEKO
IDAZKARIA

Bermeon, 2016ko abuztuaren 4an
ALKATEA

